



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

2019eko MAIATZAREN 14EKO BILKURAKO AKTA

Bilkura : Ohikoa

Eguna: 2019/05/14

Ordua: 19.00etan

Deialdia: Lehenengoa

Bilduak:

Olatz Iriarte Argaya. Alkatea
Ane Garmendia Gorostidi.Zinegotzia
Jokin Garmendia Etxeberria.Zinegotzia
Luis Lopez Garcia Uceda .Zinegotzia

Idazkaria: Nekane Lopetegi

GAI ZERRENDA

- 1.-2019-03-26ko Bilkurako akta onartzea hala balegokio .
- 2.-Tolomendi elkartearen proposamena NIREA egitasmoa onartzearena
- 3.-2018eko ekitaldiaren Kontu Orokorrari haserako onespena ematea .
- 4.-Udal langilegoaren ordainsariak eguneratzeko Eudelek luzatu duen proposamena onartzea .
- 5.-Tolosaldeko atariak proposatu duen ekarpenaren inguruan dagokiona erabakitzea .
- 6.-Irabi baserriko bidea berritzeko laguntzaren inguruan dagokiona erabakitzea .
- 7.-Herriz gora jarriko diren buzoien egoera eta finantziazioa erabakitzea .
- 8.-Alkateak eman dituen ebazpenak .
- 9.-Ur hornidura eta saneamendu lanaren faktura onartzea .
- 10.-Maite Iturriozen fidantza itzulera onartzea, 2018eko ebazpena .
- 11.- Galderak eta eskaerak

1.-2019-03-26 BILKURAKO AKTA ONARTZEA HALA BALEGOKIO .

Alkateak bilerari hasera eman ondoren, 2019-03-26ko Bilkurako aktaren izenburuak irakurri eta komentatu dira . Alkateak galdetzen zerbait zuzentzeko

ikusten den. Mahaikide guztiak ados agertu dira eta dagoen bezala onartuta geratu da.

2.-TOLOMENDI ELKARTEAREN PROPOSAMENA NIREA EGITASMOA ONARTZEARENA

Alkateak , NIREA programari atxikitzeko akordioa mahairatu du onarpena emateko .

Programaren eduki nagusiak ondorengoak dira :

- 1.-Nire programan erabiltzeko udalaren logoa eskuratuko da.
- 2.-Akordioa webgune eta sare sozialetan jakinaraziko da.
- 3.-Udalaren logoa programaren webgunean sartuko da.Nirea programa bat garatuz Euskadiko landa ingurune eta itsasertzetikiko konpromisoa bere gain hartu duen eragilea den heinean , beti ere gutxienez helburu horiek partekatzen dituen proiektu aktibo bat badauka.
- 4.-JAN TOLOSALDEA proiektuan parte hartzearen gure landa ingurune eta itsasertzaren garapen iraunkorrari egiten dion ekarpenaren errekonozimendu bat jarriko da Udalaren esku .

Mahaikideek ERABAKI DUTE :

NIREA programarekin bat egitea , eta horrela jakinaraztea .

3.-2018EKO EKITALDIAREN KONTU OROKORRARI HASERAKO ONESPENA EMATEA .

Ikusirik 2018 ekitaldiko Baliarraingo Udaleko Kontu Orokorra 15 lanegunez jende aurrean jarri dela, bere iragarkia Udaleko Iragarki Taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, edonork aztertu eta egoki zituen alegazioak aurkeztu zitzen.

Ikusirik Udaleko Idazkariak Kontu Orokorrari buruz egin duen txostenean dioena.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE:



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENA.- Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Toki Ogasunen Aurrekontuari buruzkoak, xedatutakoarekin bat etorritik Baliarraingo Udaleko 2018 ekitaldiko Kontu Orokorrari behin behineko onespena ematea.

BIGARRENA.- Gipuzkoako Aldizkarian argitaratu ematea hamabost lanegunez , eta jendaurrean epealdian alegaziorik tarteratu ezean , behin betikotzat onartuta ematea , erabaki berririk hartu beharrik gabe .

HIRUGARRENA -Akordio honen berri Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ematea.

4.-UDAL LANGILEGOAREN ORDAINSARIAK EGUNERATZEKO EUDELEK LUZATU DUEN PROPOSAMENA ONARTZEA .

2019KO EKITALDIRAKO, SEKTORE PUBLIKOAREN ZERBITZURA DAUDEN LANGILEEN ORDAINSARIEI %2,25 GEHITZEA.

2018ko martxoaren 8an Espainiako Gobernuak (Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministroaren bitartez) eta CCOO, UGT eta CSIF sindikatuek akordio bat sinatu zuten 3 urtera begira 2018,2019,2020. Enplegu publikoaren hobekuntzak eta lan baldintzak hobetzen dituen II. akordioa. Aipaturiko akordio honetan jasotakoa 2017, 2018 eta 2019ko Estatuko Aurrekontu Orokorretan txertatzea erabaki zuten.

Lortutako akordioa honek soldatei begira ondorengo igoera zehazten du.

2018:

-%1,5eko egoera finkoa.

-%0,25ko igoera aldakorra beti ere 2017 ekitaldian Espainiako Barne Produktu Gordinak %3,1ko hazkundera badu.

-%0,20ko funts gehigarria.

2019:

-%2,25eko egoera finkoa.

-%0,25ko igoera aldakorra beti ere Espainiako Barne Produktu Gordinak %2,5ko hazkundera badu.

-%0,25ko funts gehigarria.

2020:

-%2,00eko egoera finkoa.

-%1ko igoera aldakorra beti ere Espainiako Barne Produktu Gordinak %2,5ko hazkundera badu.

-%0,30ko funts gehigarria.

-2020. urtean aurrekontu orekaren, defizit publikoaren helburua beteko balitz beste %0,55 beste igoera gehigarri bat.

Bestalde 2018/12/27an argitaratu zen EAOn 2018ko abenduaren 21eko 24/2018 Errege Lege-dekretua: horren bitartez onetsiko dira ordainsarien arloko premiazko neurriak sektore publikoaren esparruan.

Aipatutako Errege Lege-dekretu horretan araututa daude langile publikoen 2019. urteko ordainsarien igoerak, eta, horren harira, soldata igoera finkoa dago aurreikusita; horri, ekonomia haztearekin lotutako igoerari dagokion ehuneko gehigarria gehitu beharko zaio.

2018ko uztailean, EUDELEk zirkular bat bidali zuen, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 6/2018 Legean jasota dauden 2018ko ekitaldirako ordainsari igoera aplikagarrien inguruko gomendio egokiekin, eta, orain, 24/2018 Errege Dekretu-legea argitaratu ostean, gomendio berdin-berdina egitea komeni da 2019ko ordainsari igoerei dagokienean.

Hain zuzen, **24/2018 Errege Lege-dekretuaren 3. Bi artikuluan** hau dago xedatuta:

- 2019. urtean, sektore publikoaren zerbitzura lan egiten duten langileen ordainsariak oro har ezingo dira igo 2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarietara ehuneko 2,25 baino gehiago, alderatutako bi epealdietarako homogeneotasunari lotuta, bai langileei eurei dagokienez, eta bai langilieriaren antzintasunari dagokionez ere; horretarako, ez dira kontuan hartuko gizarte-ekintzarako gastuak, zeinak, orokorrean, 2019an ezingo baitira izan 2018ko gastuak baino handiagoak. Horren inguruan, gizarte-ekintza arloko gastuak irabaziak, osagarriak edo hobekuntzak direla jotzen da, egindako lanagatik jasotako lansarietara desberdinak, orobat; lansariaren helburua aipatutako sektore publikoaren zerbitzurako langilieriaren inguruabar pertsonalen ondorioz sortutako premia jakin batzuk asetzea da.

- Aurreko guztiaz gain, Barne Produktu Gordinaren (BPGd) igoera 2018ko prezio iraunkorretan ehuneko 2,5ekoa edo handiagoa izango balitz, 2019ko



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

uztailaren 1ari dagokion eraginarekin, beste ehuneko 0,25eko soldata igoera erantsiko litzaioke. Aipatutako ehuneko 2,5ekoa baino txikiagoko hazkundera izanik, igoera hein berean apalagoa izango da, esandako ehuneko 2,5 horren gainean ezarritako murrizketaren arabera. Era horretan, igoera orokorren emaitzak honako hauek izango dira:

BPGd 2,1aren berdina: %2,30.

BPGd 2,2aren berdina: %2,35.

BPGd 2,3aren berdina: %2,40.

BPGd 2,4aren berdina: %2,45.

Atal honetan xedatuta dagoenaren eraginez, BPGd-ren igoerari dagokionez, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) urtero argitaratzen duen BPGd-ren balio kalkulua aurreratua hartuko da aintzat. INEk BPGd-ren aurrerapena argitaratu ostean eta, aldezturik 2018ko martxoaren 9ko enplegu publikoa eta lan baldintzak hobetzeko Erabakiaren Jarraipen Batzordeari jakinarazita, Ministro Kontseiluko Erabakiaren bitartez onetsiko da, egokia baldin bada, igoera aplikatzea. Aipatutako Erabakia autonomia-erkidegoei, hiri autonomoei eta Udal eta Probintzien Espainiako Federazioari helaraziko zaie.

- Gainera, soldata masaren ehuneko 0,25eko igoera gehigarri bat baimendu ahal izango da, beste neurri batzuen artean, honakoak egin ahal izateko: produktibitatea edo efizientzia hobetzeko planak edo proiektuak ezarri, eginkizun parekagarriak dituzten lanpostuen artean berariazko osagarriak berraztertu, lanpostu mailako osagarriak homologatu edo pentsio planetan ekarpenak egin. Artikulu honetan 2018ko ekitaldian aurrekontu superabitu egoeran zehaztutako Administrazioetan eta sektore publikoko gainerako erakundeetan, igoera gehigarri hori ehuneko 0,3ra bitartekoa izan daiteke.

Beraz, aurreko guztia kontutan izanda, Toki Jaurbidearen Oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 legeak ematen dizkidan eskuduntzaz baliatuz, ondorengo ERABAKIA hartzen dut:

LEHENA: 2019 urtean udal langileen ordainsariak, 2018ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta, % 2,25 igotzea onartzea, bai oinarritzko ordainsarrietan eta ordainsari osagarrietan (aldiezineko izaera dutenak), bai lanpostu-mailako osagarrietan eta berariazko osagarrietan ere. Igoera finkatua geratuko da eta igora honek 2019ko urtarrilaren 1etik izango du indarraldia.

BIGARRENA: Horrez gain, prezio egonkorreko Barne Produktu Gordinaren (BPGd) igoera 2018an %2,5era iristen bada, 2018ko abenduaren 21eko 24/2018



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

Errege Lege-dekretuan oinarrituz, 2019ko uztailaren 1etik aurrera % 0,25eko beste igoera onartzea ordainsarian.

HIRUGARRENA: Alkatearen ordainsari gordinak % 2,25eko igoera izango du, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta 2019ko uztailaren 1etik aurrera aurreko igoerari % 0,25 gehituko zaio.

LAUGARRENA: Ebazpen hau udal langile guztiei jakinaraztea

5.-TOLOSALDEKO ATARIAK PROPOSATU DUEN EKARPENAREN INGURUAN DAGOKIONA ERABAKITZEA .

Alkateak Tolosaldea atariak proposatutako hitzarmena 2019-2021 denboraldirako mahairatu du onarpena emateko .
Mahaikideek hitzarmenaren berri jaso dute :

BALIARRAINGO UDALA ETA TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA s.m.

2019-2021. URTE ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Baliarrainen, bi mila eta

BILDURIK

Batetik,, NAN:, Baliarraingo Udaleko (aurrerantzean Udala) alkatea, haren izenean eta ordezkari gisa, horretarako behar bezala ahalmenak dagoelarik.

Eta bestetik, XABIER SAIZAR INGIDUA, NAN: 15.997.047-J, Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.M.ren (aurrerantzean TKT) lehendakaria, haren izenean eta ordezkari gisa.

Bi alderdiok lankidetzaren hitzarmen hau egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri eta

AITORTZEN DUTE:

I.- Herritarren **hizkuntza-eskubideak bermatzeko** ahaleginean, Abaltzisketako Udalak eta TKT-k bat egiten dutela **euskararen erabilera eta normalizazioan eragiteko premi eta helburuekin, eta, asmo honen zerbitzura**, herritarrak euskaraz informatzeko eskualde mailako komunikabide sarea sustatzea dela hitzarmen honen xede eta funtsa.



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

II.- TKT-k dela Tolosaldeko Ataria egunkari eta astekaria, Ataria Irratia eta www.ataria.eus gunek osatzen duten proiektu komunikatibo multimediuaren jabe eta ekoizpen arduraduna.

III.- TKT-k kudeatzen duen komunikabide sarearen eremua Tolosaldeko eskualdea osatzen duten herrietara hedatzen dela, bere onuradun direlarik bertako herri eta herritar guztiak, tartean, Orendain.

IV.- TKT-k eraturako euskarazko proiektu komunikatibo honen helburu nagusia, eskualdean sortzen den informazioa herritarrei bitarteko anitzetan euskaraz komunikatzea dela, eta honela, **euskararen erabilpena sustatzeko eta normalizazioa eragiteko Udalak duen plangintzari ekarpen esanguratsua egiten zaiola.**

V.- Beharrezkoa dela TKT-k aipatu helburuekin eskualdean egiten duen lanari behar bezalako aitortza egitea ez ezik, bere jardunaren kalitatea ziurtatu eta sendotzeko Udala eta TKT-ren arteko lankidetzak jardunean sakontzea, aintzat harturik **Eusko Lege Biltzarraren “2/2016 legea, apirilaren 7koa. Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa”-k Udalari ematen dizkion eskumenak eta TKT-k 2018-2021erako aurkeztutako proiektu komunikatiboa eta bideragarritasun plangintza.**

VI.- Hitzarmen honek bat egiten duela Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuak “Euskarazko hedabideak sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatzeko” diru laguntzak emateko modua arautuz 2016ko uztailaren 20an emandako aginduaren helburuekin (EHAA, 2016ko uztailaren 22a, 140 zenbakia) eta, baita, Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak “Euskararen erabilera sozialaren inguruan diru laguntzak emateko oinarri arautzailetan” (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2017ko martxoaren 7a, 46 zenbakia) finkatutakoarekin ere, eta osagarri dela.

VI.- TKT-k, **gizartea zerbitzatzea duela helburu, ez duela irabazi helbururik eta, sortuko balitz, kudeatzen duen proiektu komunikatiboa hobetzera bideratuko dela osoki.**

Hau guztia honela izanik, LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatu dugu, ondorengo klausulen arabera.

KLAUSULAK

LEHENA.- LANKIDETZA HITZARMEN honen helburua da TKT-k eta Udalak, elkarlanean, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio-lanak bideratzea.

BIGARRENA. LANKIDETZA HITZARMEN honetan, TKT-k jarraian aipatzen diren ekoizpen ildoak garatu eta hobetzen ahalegintzeko konpromisoa hartzen du:

- a) Tolosaldeko Ataria, prentsa: argitaratuko dira zortzi orriko egunkaria astearte, asteazken eta ostegunean, eta astekaria ostiraletan, abuztuan izan ezik.



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

- b) Ataria Irratia 24 ordutan, urte osoan: gutxienez 5 orduko programazio propioa emitituko da astelehenetik ostiralera, abuztuan izan ezik; arratsaldean tartean utziko dira eskualdeko Gizarte Eragileen ekarpenez betetzeko.
- c) Internet, urte osoan: ataria.eus web gunea eguneratu, elikatu eta sare sozialen bitarteko hedapena egingo da urte osoan, etenik gabe.
- d) **Eskualdeko tokiko hedabideekin elkarlan bideak jorratuko dira sinergiak baliatu eta interes komunek eta kalitatezko edukiak ekoizteko, edozein euskarritan.**

HIRUGARRENA. TKT-k, bigarren artikuluan aipatu ildoak bideratzeko, herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua ere baden heinean, konpromiso hauek hartzen ditu:

- a) Herritarren intereseko produktuak (edukiak, formatu, maiztasun ...) lantzeko ahalegina egingo da. Hedabideen bilakaera azkarra kontuan, gertatzen diren aurrerabideak eten gabe aztertu dira beharrezkoak izan daitezkeen hobekuntzak egiten saiatzeko.
- b) **Ataria hedabideek, beren beregi zainduko dituzte hedatutako informazioen pluraltasuna eta objektibotasuna, iritzi zein pentsamolde guztiei lekua egiten, herritar guztien erreferentziatzko komunikazio gunea izateko helburuarekin.**
- c) Ataria marka gizarteratu eta harpide sarea zabaltzeko eta irismena areagotzeko ahalegin etengabea egingo da; **urtez urteko egitasmoan finkatutako dira helburuak eta neurketa adierazleak.**
- d) Herri guztietan dugun banaketa sistema hobetzeko neurri bideragarriak hartuko dira.

LAUGARRENA.- LANKIDETZA HITZARMEN honen bidez, Udalak, proiektua indartu eta bere bideragarritasuna bermatzeko ekimen lerro hauek garatuko ditu:

- a) Diru ekarpen zuzena. **Proiektuaren luzerako bideragarritasuna eta egonkortasun ekonomikoa bermatzeko, hitzarmen hau hiru urtekoa (2019-2021) izango da. Urtean urteko errolda eguneratuaren arabera, *biztanleko 5 €* emango dizkio 2.019, 2.020 eta 2.021 urteetan Udalak TKT-ri. Erabaki hau urtez-urte berretsi beharko du Udalak diru-kopuru zehatza adierazten duen berariazko ebazpena bidez, hartzaileak aurkeztutako aurreko urteko zuriak dokumentuak (hitzarmen honetako 6. puntua) eta dagokion urteko egitasmoa aztertu eta gero.**
- b) Publizitatea. Erreferentzialtasuna irabazteko, publizitatea egitea behartuak dauden iragarki ofizialak eta eskelak Tolosaldeko Atarian jartzeko konpromisoa hartzen du Udalak tarifatik %50eko deskontuarekin. Gainerako publizitatea, urteko fakturazioaren



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

arabera negoziatuko dute bi aldeek; hala balitz, urtean-urtean adostutako plangintza komertzialean islatuko litzateke.

- c) Beste euskarriak. Ohiko ekoizpenetik at, Udalaren eta TKT-ren artean osatuko den lan-taldeak adostutako proiektua sustatzeko diru ekarpen bereziak egin ahal izango ditu Udalak.
- d) Sozializazio eta banaketa. Herritarren eta bertako indar eragileen borondatea eta lankidetzak erakartzeko Udal zerbitzuen kooperazioa izango du TKT-k.
- e) Informazioaren kudeaketa: Udalak berak edo herrian sortzen den informazio jariora sistematikoki trukatzeko neurriak hartuko dituzte Udalak eta TKT-k.

BOSGARRENA.- Udalaren eta TKT-ren ordezkariak osatutako lan-taldeak urtero bilera egingo du. Batetik, hitzartutakoaren jarraipena egiteko, hau da, orain artean gertatu den moduan, hitzartutakoa objetibotasun, pluraltasun eta egokitasunez betetzen ari den aztertzeke. Eta, bestetik, dokumentu honetako hirugarren artikuluan hartutako konpromisoen betetze maila aztertzeke.

SEIGARRENA.- Aipatutako diru ekarpen zuzena (4.a. puntua) honela egingo da: hitzarmenean adostutako diru-ekarpen osoa dagokion urteko egitasmoa eta aurrekontua aurkeztu eta hilabeteko epean jasoko du TKT-k. Urte amaieran, jardunaren oroitidatza eta Udalaren diru-ekarpen osoa zuzentzeko fakturak edota berauen fotokopia konpultsatuak eta zerga zein gizarte segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

Edozein gisatara ere, Udalaren diru-ekarpena jaso ahal izateko, aurreko ekitaldiko harremana eguneratua egon beharko du.

Eta horrela jasota uzteko eta adostasuna agertzeko, hitzarmen honen hiru ale sinatu dituzte bildutakoek, hasieran aipatutako toki eta egunean.

Mahaikideek ERABAKI DUTE :

Bat.-Baliarraingo udalak Tolosaldeko atariarekin 2019-2021 hitzarmena sinatzea onartzea.

Bi.-Hitzarmena sinatzeko udaleko alkatea baimentzea .

Hiru.-Erabakiaren berri Tolosaldeko Atariako ordezkariari ematea

6.-IRABI BASERRIKO BIDEA BERRITZEKO LAGUNTZAREN INGURUAN DAGOKIONA ERABAKITZEA .

Landa bideen diru laguntza 2018 ekitaldikoa ondorengoa izan zen :

IrabiAurrekontua 24.600 eta laguntza 17220,00 , 2019 ean exekutatzekoa .

San JuanAurrekontua 24500,00 eta laguntza 17.150 eta 2019 urtean exekutatzekoa.

San Juan bidea dela eta, 2018 urtean 13.001,62 eurotako exekuzioa egin zen . Beraz , 2019 urterako geratzen direnak ondorengoak dira :

Irabi bideko 24.600 euro exekutatzeko , eta
San Juan bideko 11.498,38 euro exekutatzeko , beza barne .

Hauen exekuzioa 2019 urtean irailaren 15earako egin behar dira .
Balorazio bat egiteko geratu da .

7.-HERRIZ GORA JARRIKO DIREN BUZOIEN EGOERA ETA FINANTZIAZIOA ERABAKITZEA .

Herriz gora dauden baserrietako buzoiek egoera txarrean zeudela eta guztiak elkarrekin hirigunea amaitzen den lekuan jartzea erabaki zen .

Buzoi berrien balioak ere ikusi ziren eta bizilagunei ,bilera batetan horrela jakinarazi zitzaizen . Bileran , buzoien balioa 30 euro ingurukoa zela esan zen, baina buzoi komunitarioen balioa handiagoa dela ikusi da.

Egoera honen aurrean nola jokatu zalantzak sortuz iren eta azkenean , eztabaidatu ondoren , mahaikideek ERABAKI DUTE :

- 1.-Buzoi komunitarietako jartzea eta herritarrei lehen esandako zenbatekoa kobratzea , hau da 30 euro , eta besteak udalak bere gain hartzea .
- 2.-Eta erabakiaren berri herriz gorako herritarrei jakinaraztea .

8.-ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENAK .

Alkateak ondorengo ebazpena eman dituela jakitear eman da :

2019-13.-Maderas Garmendiari bide erabilera baimena

2019-14.-Hainbat ordainketa

2019-15.-jai lokala 2020rako, San Juan izendatzea

2019-16.-Aretoa guraso elkarteari uztea



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

2019-17.-Enplegu sustapena Tolosako udalaren ordeztolosaldea garatzenek egitea

2019-18.-Maderas Garmendiari bidea erabiltzeko baimena onartzea

2019-19.-Pilateseko laguntzak

2019-20.-Yogako laguntzak

2019-21.-Hainbat ordainketa

2019-22.-Aretoa ereduri uztea

2019-23.Egurra uzteko baimena .

Mahaikideek jakinaren gainean geratu dira .

9.-UR HORNIDURA ETA SANEAMENDU LANAREN FAKTURA ONARTZEA .

Ur hornidura eta saneamendu lanak Eregi enpresari esleitu zitzaizkion , horretarako kontratazio legediak esandako prozedura jarraitu ostean . Udaleko arkitektoan lanen jarraipena burutu du, eta obra amaiera txostenean jasota geratzen da .

Ur hornidura eta saneamendua lanaren inguruan egindako lanak ondorengo fakturretan adierazten dira :

Eregi	48.207,02€
Iturberri	2.565,20€
Iturberri	453,75€
Arkitektoa	2.023,90€
Guztira	53.249,87

Proiektu honek Leader egitasmoko diru laguntza onartua zuen , ondoren esten den terminoetan:

Onartutako inbertsioa	64.376,48€
Onartutako laguntza	32.188,24€

Egindako gastua gutxiago denez , jasoko den laguntza ere gutxiago izango da.

Mahaikidek ERABAKIDUTE :



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

Bat .-Ur homidura eta saneamendu exekuzio lanen obra amaiera ontzat ematea .

Bi.- Ondorengo fakturak ordaintzea :

Eregi	48.207,02€
Iturberri	2.565,20€
Arkitektoa	2.023,90€

Hiru: Leader egitasmora egindako lanaren espedientea igortzea , eta dagokion diru laguntza bideratzea.

10.-MAITE ITURRIOZEN FIDANTZA ITZULERA ONARTZEA, 2018EKO EBAZPENA .

Maite Iturrioz andreak , duela hiru urte egurra ateratzeko San Juan bidea erabili behar zuela eta bermea utzi zuen udalean .

Hainbat urte pasa dira orain bermearen itzulera eskatu du .

Ikusirik bidearen erabilera zuzena izan zela eta kalterik sortu ez zuela ,

Mahaikideek ERABAKI DUTE :

Maite Iturrioz andreak utzitako bermea itzultzea .

11.- GALDERAK ETA ESKAERAK

Bat .-Bi txerri ,30 kilo inguru bakoitzak dituenak, eta bi zaku pentsu ekartzeko geratu dira , lanak amaitu direlako .

Bi.-Miren Garmendia Etxeberria udal langileak astean 15 orduko lantsaioa du.Aldiz, uda sasoiaren dedikazio handia izaten du belarra moztu eta beste zenbait lana egiteko .

Langilearen lanak zehazten jardun izan da, beharrak handitzen ari direlako .

Besteak beste ondorengo lanen zerrenda egin da :

.-San Juango zabor ontziak bildu .

.-San Juango mahaiak eta aulkiak lijatu

.-San Juan bideko ur hodien puntak eta ur bideak garbitu

.-Kiosko barandilak mantenu

.-Farolak margotu .

.-Beheko parkeko goiko parkeko eta hiriguneko beste barandilak mantendu .

.-Eremu publikoetako belarra moztu .

.-Enparantza, espaloiak, parkeak ,pilotalekua, komunak, udaletxea , haurreskola garbitu eta mantenu .

.-Udalak dituen parketako elementu guztiak errebisatu eta mantenu , ahal bada .

.-Hiriguneko mobiliario zaindu eta mantenu , ahal bada

.-Eta udalari informatu , bide erabilerak , obrak burutzen ari direnak e.a.



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

-Udaleko deiak banatu, eta udaleko alkateak esandako lan puntualak betetzea , ahal izan ez gero .

Lan guztia baloratu ostean , 2019eko ekainaren 1 etik hasi eta 2020 eko maiatzaren 31 arte lantsaio erdiko lan jarduna egitea erabaki da , hau da gaur egun 15 ordukoa duena , 20 ordura igotzea , %55 eko dedikazioaren denboraldi horretarako .

Hiru.- San Juanen dagoen txabola garbitu egin dela eta herritarrei jakinaraztea proposatu da . Eta bide batez herrigintza wasapa bidez lehen zegoen bezala eta ora dagoen bezala jasotzen duen argazkiak bidaltzea . Mahaikideek egoki ikusi dute proposamena eta bidaltzea erabaki dute .

Eta besterik ezean bilera amaitutzat eman zuen alkatea.

Alkateak

Idazkariak